AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4813

317/2012 EBAZPENA, urriaren 3koa, Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Bilbo Eskualdeko Javier Sáenz Buruaga Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak esleitzen zaizkio María Lucio Gutiérrez andreari.

Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentearen uztailaren 1eko 208/2012 Ebazpenaren bidez, Bilbo Eskualdeko Javier Sáenz Buruagako Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren lanpostua betetzeko deialdia argitaratzea onartu zen.

Aurkeztutako eskabidea, eta, halaber, alegatutako merituak egiaztatzeko agiriak azterturik, eta indarrean dagoen legeriaren arabera, Gerentzia Zuzendaritza honek dituen eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– María Lucio Gutiérrez andreari Bilbo Eskualdeko Javier Sáenz Buruaga Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak esleitzea.

Bigarrena.– María Lucio Gutiérrez andreak kudeaketa eta asistentzia funtzioak beteko ditu, biak batera Bilbo Eskualdeko Javier Sáenz Buruaga Osasun-Zentroan, Osasun-Eskualdeko gerentearen mendean zuzenean eta hierarkikoki. Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak betetzen dituen bitartean, nahiz eginkizun horiek amaitzean, bere kategoriako plazaren jabetza mantenduko du, eta plaza horretako oinarrizko eginkizunak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, ardura bereziaren osagarria kobratuko du María Lucio Gutiérrez andreak. Osagarri hori 3/1987 Errege Lege Dekretuak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuta dago; zenbatekoa eta ezaugarriak, berriz, uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean daude ezarrita.

Bosgarrena.– Ebazpen honek urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena:- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bilbon, 2012ko urriaren 3an.

Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.